

1. Pentsio-planaren Arrisku-adierazlea.

<= Errendimendu txikiagoa potentzialki	Errendimendu handiagoa potentzialki =>					
<= Arrisku txikiagoa	Arrisku handiagoa =>					
1	2	3	4	5	6	7

Datu hori planaren arriskuaren adierazlea da eta funtsaren ondarea inbertitzea aurreikusten den aktibo-moten portaera historikoaren arabera estimatu da. Hala ere, arrisku-maila denboran zehar alda daitekeen aldagaiaenez, adierazlea neurri estatiko bat da, planaren arriskuaren etorkizuneko profila aurreikusten ez duena.

2. Pentsio-planaren likideziari buruzko alerta.

“🔒🔒 Prestazioa kobratu edo berreskurapen-eskubidea erabili, soil-soilik egin daitezke pentsio-plan eta -fondoaren arautegian araututa dauden kontingentziak, salbuespenetzko likidezia-kasuak edo aurretiazko erabilerak gertatzen direnean”.

“🔒🔒 Mobilizazioen, prestazioen eta likideziazko ezohiko edo aurretiazko erabilerak kasuen eskubide-balioa pentsio-funtsen aktiboaren merkatuko balioaren arabera da, eta galera garrantzitsuak eragin ditzake”.

3. Definizioa.

Pentsio-planak borondatezko aurrezki-produktu bat dira, pentsio-funts batean integratuak daude, eta aldian aldiko eta/edo aparteko ekarpenak eginez zein bi motako ekarpenen bidez, kapital edo pentsio bat eratzeko aukera ematen dute (kapitalizazioaren sistema finantzario baten bidez), eta kapital hori geroko erretiroko, ezintasun iraunkorreko eta mendekotasuneko egoera badago hori osatzeko erabiliko da, edota -hilez gero- izendatutako onuradunen aldeko heriotzagatik prestazioetarako.

4. Pentsio-planaren izendapena eta erregistro berezian duen identifikazio-zenbakia.

Kutxabank Renta Fija, Pentsio Plana, Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren erregistro berezian inskribatua N0077 zenbakiarekin.

5. Pentsio-funtsaren izendapena eta erregistro berezian duen identifikazio-zenbakia.

Kutxabank Renta Fija Pentsio Plana integratua dago Kutxabank Renta Fija Pentsio Funtsen barruan, eta Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren erregistro berezian inskribatua F0025 zenbakiarekin.

6. Planaren sustatzailearen, erakunde kudeatzailearen eta gordailuzainaren izendapena eta dagozkien erregistro berezietako identifikazio-zenbakia.

- **Sustatzailea:** Kutxabank, S.A.
- **Erakunde gordailuzaina:** Cecabank, S.A., Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren pentsio-funtsen erakunde gordailuzainaren erregistro berezian inskribatua D0193 zenbakiarekin.

- **Erakunde kudeatzailea:** Kutxabank, S.A.U., Pentsio Funtsen Erakunde Kudeatzailea, Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren pentsio-funtsen erakunde kudeatzailearen erregistro berezian inskribatua G0234 zenbakiarekin.

7. Inbertsio-politikaren deskripzioa.

Funtsaren zorroa honela osatu da: Errenta Finkoa (% 100 inguru), nagusiki eurogunekoa, eta epe ertainera/luzera partaideentzako errentagarritasun on bat lortzera bideratutako batez besteko iraupena du.

8. Jasangarritasun-arriskua.

Honela definitzen da: ingurumeneko, gizarteko edo gobernantzako (ESG ingeleseko siglak dira) gertaera edo egoera oro, zeinak, gertatuz gero, eragin material negatibo erreala edo posiblea eduki baitezake inbertsio baten balioaren gainean.

Pentsio-fondoan kudeaketak aintzat hartzen ditu jasangarritasun-arriskuak, inbertsioen gaineko erabakiak hartzeko unean. Jasangarritasun-arriskua kontuan hartzeko, erakunde gestigileak inbertsioen kudeaketa eskuordetuta duen inbertsio-erakundeak erreferentzia gisa hartzen du, bai inbertitzen duen aktiboen jaulkitzaileek argitaratutako informazioa, bai kalifikazio-konpainiek edo inbertsio-entitateak bere metodologiaren arabera egindako ESG arriskuen ebaluazioa.

Gestigileak erabakietan sartzen du jasangarritasun-arriskua, askotariko jardun-lerro bidez, hala nola: eskusio-irizpideak, balorazio-irizpideak, gaietan oinarritutakoak, kontrako inaktuak ebaluazioa, eta jabetza aktiboaren jarduna.

Jasangarritasun-arriskua, besteak beste, jaukitzaile-motaren, jarduera-sektorearen eta haren kokapen geografikoaren menpe egongo da. Horrela, jasangarritasun-arrisku handiagoko inbertsioek mendeko aktiboen prezioaren jaitsiera eragin dezakete, eta, beraz, eragin negatiboa eduki, pentsio-fondoaren partaidetzaren likidazioko balioan.

Hala, gestigileak, inbertsio-erakundearen bidez, aintzat hartzen ditu jasangarritasun-faktoreen gaineko erabakien kontrako eragin nagusiak, materialak edo material izan daitezkeenak.

9. Errentagarritasun historikoak.

Pentsio-planaren errentagarritasun historikoak hauek dira:

2022eko ekitaldian metatutakoa	-%10,90
2021eko ekitaldia	-%0,91
Azken 3 urteak (2019-2021)	%2,19
Azken 5 urteak (2017-2021)	%0,93
Azken 10 urteak (2012-2021)	%1,78
Azken 15 urteak (2007-2021)	%1,70
Azken 20 urteak (2002-2021)	%1,62

10. Errentagarritasun-bermerik ez izatea.

Pentsio Plana banakako sistemakoa eta ekarpen mugatukoa da, eta bertan parte-hartzaileek egin beharreko ekarpenaren zenbatekoa soilik definitzen da. Pentsio-funtsa osatzen duten aktibo finantzarioen errendimenduaren arabera eskuratzen da errentagarritasuna; beraz, ez da inolako errentagarritasunik bermatzen, eta galerak egon daitezke.

11. Komisioak eta gastuak.

% 0,85eko urteko kudeaketa-komisioa izango du eta % 0,20eko urteko gordailu-komisioa, biak ala biak inputatu behar diren posizio-kontuetara aplikatuz.

Halaber, pentsio-planari egotz dakizkioke funtsaren zenbait gastu, planari egoztekoak diren heinean eta araudi aplikagarriak ezarritako baldintzekin bat.

12. Eskubide kontsolidatuen izaera ez itzulgarria, kobratzeko inguruabarrak gertatzen ez diren bitartean.

Partaideek ezingo dituzte haien eskubide kontsolidatuak eskuratu, ez bada gizarte aurreikuspeneko beste tresna batean edo batzuetan sartzeko, araudi aplikagarrian aurreikusitako termino eta baldintzetan, edota pentsio-planak estaltzen duen kontingentziaren bat sortzen duen egoera gertatu arte edo beste likidezia eta aurreiazko erabilera kasu batzuetan.

13. Estalitako kontingentziak.

Planak ez du estaltzen plana kontratu aurretik jada gertatutako kontingentziarik. Partaideari gerta dakizkiokeen kontingentziak estaltzen ditu, haren egoera pertsonalaren arabera. Hauek dira:

▪ Partaidearen erretiroa

Beraz, erretiro-kontingentzia zehazteko, kontuan hartuko da dagokion Gizarte Segurantzaren erregimenean aurreikusitakoa eta egoera hori gertatu dela ulertuko da Partaideak dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean erretiroa hartzen duenean, bai ohiko adinean, bai aurreratuta edo atzeratuta.

Gizarte Segurantzaren araudiaren arabera erretiro partzialeko egoeran dauden pertsonak aukeran izango dute erretiro osorako ekarpenak egiten jarraitzea edo erretiro partzialeko prestazioa jasotzeko izapideak egitea.

Partaide batek erretiroa eskuratu ezin duenean, kontingentzia hori gertatu dela ulertuko da 65 urte betetzen dituzenean, eta partaideak lanik ez badu edo lan-jarduera zein jarduera profesionala utzi badu, eta ez bada kotizatzen ari erretiro-kontingentziarako Gizarte Segurantzako ezin erregimenean.

Desgaitasuna duten pertsonentzako erregimen berezian sartuta dauden partaideen kasuan, desgaituak ezin baldin badu erretiroa hartu, kobratu ahal izango du 45 urtetik aurrera, baldin eta langabezian edo okupazio profesionalik gabe badago. Berebat izango da eskubide hori desgaituaren ezkontideak edo tutoretza edo harrerako erregimenean Partaide bere kargu eta mende duen ahaide batek -arudiak ezarritako linea eta mailetan- erretiroa hartzea.

Erretiroari dagokion prestazioa aurreratu ahal izango da pentsio-planaren zehaztapenetan eta indarrean dagoen araudian ezarritako terminoetan.

▪ Ezintasuna

Partaidearen ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoa estaltzen da, edozein lanetarako ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia. Egoera hauek zehazteko, dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean aurreikusitakoari jarraituko zaio.

Partaide desgaitasuna duten pertsonentzako erregimen berezian sartuta baldin badago, partaidearen desgaitasun-maila larritzea ere estalia egongo da, bai eta ezkontidearen ezintasuna edo haren ahaideren batena ere, araudiak ezarritako linea

eta mailetan, partaidea haien mende badago edo haien tutoretzan edo harreran dagoenean.

- **Heriotza**

Partaidearen edo onuradunaren heriotza estaltzen da, izendatutako pertsonen aldeko prestazioa eraginez.

Partaidea desgaitasuna duten pertsonentzako erregimen berezian sartuta baldin badago, prestazioa jaso dezake ezkontidea edo tutoretza edo harrerako erregimenean. Partaidea bere kargu eta mende duen ahaide bat -araudiak ezarritako linea eta mailetan- hiltzen bada.

- **Partaidearen mendekotasun larria edo handia**, une bakoitzean indarrean dagoen araudi erregulatuazalean esaten denaren arabera.

Partaidea desgaitasuna duten pertsonentzako erregimen berezian sartuta baldin badago, prestazioa jaso dezake ezkontideak edo tutoretza edo harrerako erregimenean. Partaidea bere kargu eta mende duen ahaide batek -araudiak ezarritako linea eta mailetan- mendekotasun larria edo handia badu.

14. Ekarpenen eta prestazioen arteko bateraezintasunak

Oro har esanda, batek ezin izango du, kontingentzia-kasu berarengatik, aldi berean partaidea eta onuradun izan pentsio-plan batean edo pentsio-plan bat baino gehiagotan, eta ezinezkoa izango da kontingentzia berarengatik, aldi berean, ekarpenak egin eta prestazioak kobratzea.

Erretiroa hartu ondoren, partaideak jarrai dezake pentsio-planerako ekarpenak egiten. Hala ere, erretiroko prestazioa kobratzen hasiz gero, heriotza eta mendekotasuneko kontingentzietarako bakarrik izango dira ekarpen guztiak.

Erretiroa hartzen duen unean partaidea alta emanda badago Gizarte Segurantzaren beste erregimen batean bigarren jarduera batean ari delako, pentsio-planerako ekarpenak egiten jarraitu ahal izango du, baina erretiroko prestazioa kobratzen hasten denean, heriotzako kontingentziaren, mendekotasun larriaren edo mendekotasun handiaren kasuan erabiltzeko bakarrik izango dira hortik aurrera egindako ekarpen guztiak. Erregimen berdina aplikatuko zaie, halaber, erretiro partzialeko egoeran sartzen diren partaideei.

Erregimen hori bera aplikatuko da partaideak ezin duenean erretiroa hartu. Kasu horietan, ekarpenak egiten jarraitu ahal izango du. Hala ere, erretiroko prestazioa kobratzen edo aurreratzen hasiz gero, heriotza eta mendekotasuneko kontingentzietarako bakarrik izango dira ondorengo ekarpen guztiak.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoa gorabehera, prestazioa kobratu badu edo kobratzen hasi bada eta onuradunak alta hartzen badu Gizarte Segurantzaren erregimen batean jarduera egiteagatik edo berriz ekiteagatik, berriro ere ekarpenak egin ahal izango ditu erretirorako, prestazioa osorik jaso duenean edo kobrantza eten denean, gelditzen zaizkion eskubide ekonomikoak geroko erretirorako utziz.

Erretiroari dagokion prestazioa aurreratzen denean, onuradunak, nahi badu, gerta dakioken edozein kontingentzietarako ekarpenak, erretirokoa barne, egiten hasteko aukera izango du berriro, prestazioa osorik kobratu duenean edo kobrantza eten denean, kobratu gabe geratutakoa beste kontingentzietarako utziz espresuki.

Ezintasun osoa eta iraunkorra duten pertsonak ohiko lanbiderako, edo absolutua eta iraunkorra edozein lanetarako, edota dagokion Gizarte Segurantzako Erregimenean aitortutako ezintasun handia dutenek pentsio-planerako ekarpenak egin ahal izango dituzte interesatuari gerta dakizkiokeen kontingentzien estaldurarako, hauek kontuan hartuz:

- Erretiroa ezin bada hartu, ulertuko da kontingentzia hori gertatu dela interesatuak 65 urte betetzen dituenetik aurrera. Aurrekoa aplikatu ahal izango da dagokion Gizarte Segurantzaren Erregimenak erretiroa hartzea aurreikusten duenean ezintasunagatik, eta ezintasun hori erretiroa hartzeko ohiko adina bete aurretik gertatzen denean.
- Laneko ezintasun bat sortzen duen egoera gertatzen denean, partaideak pentsio-planerako ekarpenak egiten jarraitu ahal izango du, ezintasunari dagokion prestazioa geroago kobratzea eskatuz.
- Ezintasun iraunkorragatiko pentsio-plan baten prestazioaren onuradunak pentsio-planerako ekarpenak egiten jarrai dezake gerta daitekeen beste edozein kontingentziarako, beste prestazioa osorik kobratu duenean edo kobrantza eten duenean, kobratu gabe geratutakoa beste kontingentzietarako utziz espresuki.

15. Aparteko likidezia-kasuak eta aurretiazko erabilerak.

Eskubide kontsolidatuak efektibo egin daitezke, guztiz edo zati batean, aparteko kasuetan eta dagokion lege-araudiak eskatzen duenarekin bat, gaixotasun larriaren edo iraupen luzeko langabeziaren kasuetan, pentsio-planeko zehaztapenetan ezarritako terminoetan eta ezarritako baldintzekin eta mugekin bat.

Gaixotasun larriagatik edo iraupen luzeko langabeziagatik eskubide kontsolidatuak eskuratzea bateraezina izango da edozein Pentsio Planera ekarpenak egitearekin, baldintza horiek mantentzen diren bitartean.

Partaideak edozein kontingentziatarako ekarpenak egiten jarraitu ahal izango du, behin eskubide kontsolidatuak guztiz jaso eta gero, edo kobratzeari utziz gero -kontingentzia horietarako geldikina bakarrik utziz-.

Horrez gain, partaideak bere eskubide kontsolidatuak efektibo egin ahal izango ditu ohiko etxebizitzaren gaineko egikaritze-prozeduraren kasuan, aplika daitekeen araudiak ezarritako baldintzekin bat.

Halaber, gutxienez hamar urteko antzinatasunarekin egindako ekarpenei dagozkien eskubide kontsolidatuak kobratzea aurreratu ahal izango du, arauz ezarritako baldintzekin. Kasu honetan jasotzen dena bateragarria da planetara ekarpenak egitearekin, gerta daitezkeen kontingentzietarako, araudian aurreikusitakoaren barruan.

16. Prestazioak: eskaerak eta kobratzeko moduak.

Onuradunak edo honen legezko ordezkariak, pentsio-planaren xehetasunetan ezarritakoarekin bat, prestazioa eskatu beharko dio Erakunde Kudeatzaileari.

Eskaera horretan, Onuradunak edo horren legezko ordezkariak prestazioa kobratzeko hautatu den modua zehaztuko dute, eta dagozkion agiriak aurkeztuko dituzte, Xehetasunetan ezarritakoarekin bat.

Halaber, eskubide kontsolidatuen kobrantza partzialak egitean estalitako gertakizunengatik edo ezohiko likidezia egoerengatik edota aurretiaz erabiltzeagatik, eskaeran zehaztuko beharko duzu jaso nahi dituzun eskubideak 2007ko urtarrilaren 1 baino lehenagokoak edo beranduagokoak diren, halakorik badago. Hainbat ekarpen badaude Partaideak edo Onuradunak adierazitako atalaren barruan, hau da, 2007ko urtarrilaren 1 baino lehenago edo beranduago, ekarpen zaharrenei dagozkien eskubideei irteera emango zaie, ezohiko likidezia-egoeretan izan ezik: halakoetan ekarpen berrienei dagozkien eskubide kontsolidatuak likidatuko dira lehendabizi.

Kobratu beharreko prestazioa kapital bakar baten moduan jaso daiteke, errenta moduan edo modu mistoan, edo aurreko moduez bestelakoa epe erregularrik gabeko ordainen bidez;

partaideak aukeratuko du modua, indarrean dagoen legeriak eskaintzen dituen aukeren arabera.

Prestazio ekonomikoa araudiak ezarritako gehieneko epearen barruan ordaindu beharko da, eskatutako izapide guztiak egin eta erakunde kudeatzaileari beharrezko diren agiri guztiak eramaten zaizkion datatik kontatzen hasita.

Prestazioak errenta gisa jaso ahal izateko, ezinbestekoa izango da Onuraduna ez dela hil egiaztatzea, urtero haren bizi-agiri bat aurkeztuz edo horretarako ezartzen den beste sistema egoki baten bitartez.

Salbuespenezko kasuetan prestazioak eta eskubide kontsolidatuen likidezia aitortzeko, planaren posizio-kontuaren balioa erabiliko da, zehaztapenetan ezarritakoaren arabera, eta, beraz, errentek eta data geroratu duten ordainketek ordaindu diren eguneko balio likidagarria hartuko dute. Gainerako prestazioek, salbuespenezko likidezia-kasuek edo aurretiazko erabilerek eragiketa horiek egiteko datan eskuragarri dagoen argitaratutako azken balio likidagarria hartuko dute.

17. Legeria aplikagarria, erregimen fiskala eta ekarpenen mugak.

17.1 Legeria aplikagarria

Pentsio-plana arautzen dute Pentsio Plan eta Funtsen Legearen testu bateginak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoak, eta Pentsio Plan eta Funtsen Erregelamenduak, otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretuak onartutakoak, eta pentsio-planaren zehaztapenek eta aplikagarriak izan ditzakeen gainerako lege-xedapenek.

17.2 Zerga-erregimena

Produktu honi aplikatu behar zaion erregimen fiskala une bakoitzean partaidearen edo onuradunaren egoitza fiskalean aplika daitekeen eta indarrean dagoen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) Araudiaren mende egongo da.

Orokorrean, egiten diren ekarpenek ekarpenak egiten dituztenen PFEZaren zerga-oinarri orokorra murriztu dezakete, muga kuantitatibo eta kualitatibo batzuen barruan, eta muga horiek aldatu egingo dira haren egoitza fiskalaren arabera aplika dakioken araudiaren arabera.

Bestetik, prestazioek, baita heriotzagatik dagozkionek ere, lan pertsonalaren errendimendu gisa tributatzen dute. Prestazioaren hartzaileari aplika dakioken araudiaren arabera eta jasotzeko moduaren arabera (kapital edo errenta moduan), baliteke errendimenduaren kalkuluan murrizketaren bat aplikatu behar izatea.

17.3 Ekarpenen mugak

Partaideak Pentsio Planari egiten dizkion ekarpenek, bestelako ekarpen konputagarrieekin batera, urte naturalean ezingo dute inolaz ere legeriak ezarritako mugak gainditu (une honetan urteko 1.500 eurotan ezarria erregimen orokorrean), eta araudi aplikagarrian aurreikusitako bateraezintasun-erregimenaren mende egongo dira –prestazioei eta likidezia-egoera berezietan eskubide kontsolidatuak jasotzeko buruz–.

Finantza-mugak ez betetzea arau-hauste oso larritzat hartuko da, eta administrazio-zehapenak ezarriko zaizkio. Gehieneko ekarpenaren gainean sortzen diren soberakinak erretiratu egin beharko dira soberakina gertatu eta hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen, aurreikusitako zehapena saihesteko.

Ekarpenetan egin den gehiegizko zenbateko efektiboa itzuliko da, Partaidearen eskubide kontsolidatuaren kargura. Gehiegizko ekarpenari egotz dakioken errentagarritasuna, positiboa bada, Pentsio Funtsaren ondareari gehituko zaio, eta, negatiboa bada, Partaidearen kontura izango da.

18. Eskubide kontsolidatuen mugikortasuna.

Eskubide kontsolidatuak eta ekonomikoak beste pentsio-plan batera edo batzuetara mugitu ahal izango dira, aseguratutako aurreikuspen-plan batera edo gehiagotara, edo enpresaren Gizarte Aurreikuspen-plan batera, partaidearen aldebakarreko erabakiz edo plana amaitu bada. Aldebakarreko erabakiz egiten den mugikortasuna osoa ala partziala izan daiteke. Eskubide ekonomikoak aseguratua badaude, mobilizazioa egin ahal izango da, prestazioaren garantia- eta aseguru-baldintzek hori baimentzen dutenean.

Partaideak bere eskubide guztiak edo batzuk mugitu nahi baditu, helburuko erakunde kudeatzaileira edo aseguratzaileira jo beharko du, intsuldaketa abia dezan.

Horretarako, partaideak mugikortasun-eskaera aurkeztu beharko du helburuko erakunde kudeatzailean, eta bertan gehitu beharko ditu mugimendua egingo den jatorrizko pentsioen planaren eta funtsaren identifikazioa zein, hala dagokionean, mugitu nahi duen zenbatekoa eta partaidearen baimena helburuko erakunde kudeatzaileak edo aseguratzaileak, haren izenean, jatorrizko funtsaren kudeatzaileari eska diezaion eskubide kontsolidatuen mugimendua, baita egiteko beharrezkoa den informazio finantzario eta fiskal guztia ere.

Eskubide kontsolidatu edo ekonomikoen mobilizazio partzialen kasuan, eskaeran zehaztuko beharko duzu mugitu nahi dituzun eskubideak 2007ko urtarrilaren 1 baino lehenagokoak edo beranduagokoak diren, halakorik badago. Partaideak halakorik adierazten ez badu eskaeran, mobilizatu beharreko eskubideak modu proportzionalean kalkulatu dira data hori baino lehenagokoak eta beranduagokoak diren ekarpenei dagokienaren arabera, halakorik badago. Azkenik, hainbat ekarpen badaude Partaideak edo Onuradunak adierazitako atalaren barruan, hau da, 2007ko urtarrilaren 1 baino lehenago edo beranduago, atal bakoitzeko ekarpen zaharrenei dagozkien eskubide kontsolidatuak mobilizatuko dira lehendabizi.

Gehienez ere bi eguneko epean –helburuko erakunde aseguratzaileak edo erakunde kudeatzaileak beharrezkoa den dokumentazio guztia jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita– eskatu beharko dio jatorrizko funtsaren kudeatzaileari eskubideen intsuldaketa, eskubide horiek mugitzeko legez ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeaz gain. Jatorrizko erakunde kudeatzaileak eskaera jasotzen duenetik gehienez ere bost egun balioduneko epean, erakunde horrek banku-intsuldaketa egitea agindu beharko du eta helburuko kudeatzaileari edo aseguratzaileari bidali intsuldaketa egiteko beharrezkoa den informazio finantzario eta fiskal guztia.

Helburuko erakunde kudeatzaileak edo aseguratzaileak mugikortasun horiei buruzko dokumentazioa gorde behar du.

Jatorrizko erakunde kudeatzailea helburuko funtsaren kudeatzailea ere baldin bada, intsuldaketa-agindua hiru egun balioduneko epean jaulki beharko du, partaideak eskaera aurkezten duen datatik zenbatzen hasita.

Sarrera-mobilizazioek sarrera-egunaren balio likidagarria hartuko dute. Irteerako mobilizazioek, aldiz, exekuzio-datan eskuragarri dagoen argitaratutako azken balio likidagarria hartuko dute.

19. Partaidearentzat funtsezko datuak dituen dokumentu hau webgune honetan argitaratu da.

Partaidearentzat funtsezko datuak dituen dokumentu hau webgune honetan eguneratu eta argitaratu da: www.kutxabank.es/www.cajasur.es.

20. Erakunde kudeatzailea gordailuzainarekin lotzen duen harreman-mota.

Ez dago loturarik erakunde kudeatzailearen eta erakunde gordailuzainaren artean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluaen arabera.

21. Interes-gatazkak saihesteko prozedurak, eta, hala badagokio, lotutako eragiketei buruzko prozedurak.

Erakunde kudeatzaileak legez ezarritako barne-prozedurak erabili ditu, interes-gatazkak saihesteko eta egin litezkeen eragiketak Pentsio Fondoaren interes eskusiborako eta merkatuko prezio edo baldintza berdinetan edo hobeetan egin daitezzen. Prozedura horiek jasota daude jokabidearen barne-erregelamenduan.